

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### **2025. urtean Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen deialdia**

Udalbatzak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, onespena eman zien 2025. urtean Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen oinarri arautzaileei.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

#### 1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da 2025. urtean Donemiliagako udalerriko herrietan egiten diren jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteak eragindako gastuak finantzatzea.

#### 2. OINARRIA. ONURADUNAK.

Donemiliagako udalerriko kontzejuek edo batzorde antolatzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta kideen onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexua dela eta bereizkeriarik egiten ez badute.

Kontzejuaren oniritzia izan beharko dute 2025ean zehar kultura ekintzak eta ospakizunak antolatzen dituzten batzorde antolatzaileek.

#### 3. OINARRIA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK.

Diruz lagundu ahal izango dira jai egitarauko jarduerak, Donemiliagako udalerrietan egiten direnak, eta kultura, jolas, jai eta kirol ekitaldiak, bai eta jai jarduerak zabaltzeko kartelak ere.

Jarduerak herrikoiak izan beharko dira. Herritar guztientzako izan beharko dira, oro har, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu behar dute.

Trofeoak (txapelak, kopak, urdaiazpikoak, gaztak, hainbat sustapen-objektu...) eta haurrentzako tailerrak egiteko materialak eta abar erosteko, haien kostuaren ehuneko 50eko dirulaguntza emango da.

Diruz lagunduko dira, halaber, agertokiak alokatzeak eragindako gastuak, programatutako jarduerak egiteko halakoa beharrezkoa dela egiaztatzen duten herrietan eta herriok hala eskatu ondoren.

Salbuetsita geratzen dira otorduen, luchen eta antzekoen gastuak, bai eta elikagaien gastuak ere, hala nola gozoki, edari eta bestelakoak.

Ez dira diruz lagunduko sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duen jarduerarik.

#### 4. OINARRIA. AURREKONTU KREDITUA ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak 2025eko aurrekontu orokorreko 334.434.000 aplikazioko partidaren kredituari (9.162 euroz hornitua) eta 338.434.000 partidarenari (14.761,00 euroz hornitua) egotziko zaizkio.

Kontzeju bakoitzak, gehienez ere, 1.300,00 euroko dirulaguntza jasoko du, eskatutako jarduera kopurua eta eskatzaile kopurua zein diren gorabehera, eta udalaren aurrekontu aplikazioaren muga (18.000,00 euro) kontuan hartuta. Onetsitako aurrekontu aplikazioa eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, hura handitu ezean, gehieneko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Agertokiak alokatzeko, kontzeju guztien artean, gehienez 4.500,00 euro emango dira dirulaguntzetan. Kontzeju bakoitzari dagokion zenbatekoa aurkeztutako eta onartutako eskaeren arabera izango da.

Eskaerak ebatzi ondoren kreditu erabilgarririk badago, kontzejuei eman ahal izango zaie jaietako jardueretarako orkestrak kontratatuzko gastuak ordaintzeko, betiere kontratazioaren zenbatekoa 2.000,00 eurotik gorakoa bada. Gehieneko zenbatekoa, aurrekontu aplikazioan dagoen kreditu erabilgarria kontuan izanik, 1.250,00 euro izango da. Eta beraz, gehienez ere 1.300,00 euroko hasierako dirulaguntza ezin izango da 2.550,00 euro baino handiagoa izan.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta eskatzaileek aurkezten dituzten jarduera memorietan eta ekonomia arloko memorietan eta udalaren aurrekontu partidan oinarrituta xedatuko dira.

#### 5. OINARRIA. ESKAERAK, AGIRIAK ETA KOBRAZTEA.

Emandako dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduera egina izan behar da.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte udal bulegoetan:

1. Eskaera orria, eredu ofizialaren arabera, administrazio batzarreko lehendakariak edo jai batzordearen eta/edo gizarte eta kultura jardueren ordezkariak sinatua. Eskaera orriak udal bulegoetan eskura daitezke.

2. Honako hauek adierazten dituen memoria zehatza: jarduerak, horiek noiz egin diren, eta partaideak.

3. Egindako gastuari dagozkion fakturak, bai eta ordainagiria edo justifikazio kontu erraztua ere, l. eranskinean jasotakoaren arabera (Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 75. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik).

#### 6. OINARRIA. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Agiriak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, jarduera egin ondoren. Herri guztiek eskaerak aurkezteko duten epea 2025eko abenduaren 12an bukatuko da.

Salbuespen gisa, 2025eko abenduaren 14tik 31ra bitartean gastuak egiten badira, egiaztagiriak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 7ra arte luzatuko da. Halakoetan, abenduaren 13a baino lehen, Donemiliagako Udalean aurkeztu beharko da kasuan kasuko eskaera, gastu xedapena ezagutze aldera.

Eskaera batek ez baditu adierazitako baldintzak betetzen, Donemiliagako Udalak interesdunari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. 2026ko urtarrilaren 7ra arte izango du horretarako epea.

#### 7. OINARRIA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

– Emandako dirulaguntza onartzea eta eskatu den xederako erabiltzea.

– Diruz lagundutako programak, proiektuak edo jarduerak sustatzeko egiten diren dokumentu, material, kartel eta testuetako edukietan hizkuntza eta irudi sexistarik ez erabiltzea. Emakumeak eta LGTBI kolektiboak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea, eta balio berdintzaileak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero identitateen pluraltasuna sustatzea.

– Kartela edo jarduera zabaltzeko prestatutako agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztea jaia egin aurretik; hartara, udalak gainerako kontzejuei helaraziko dizkie.”

– Publizitatea eta komunikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egitea (itzulpenerako laguntza behar izanez gero, udal zerbitzuetara jo daiteke).

– Berariaz aipatzea Donemiliagako Udalaren babesa diruz lagundutako proiektua edo jarduera dela-eta egiten den material orotan.

– Donemiliagako Udaleko organoek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudunek eskatzen dituzten argibide guztiak eman beharko dira.

– Jardueretan genero indarkeria eta mikromatxismoak prebenitzea.

– Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak betetzea.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

Dirulaguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko da.

#### 8. OINARRIA. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

Donemiliagako Udalaren “Euskararen erabilera plana” hizkuntzaren normalizazioan aurre-rapausoak emateko plan estrategikoa da. Oinarrizko tresna da, udalerriko lehentasunak eta beharrak kontuan hartuta garatu beharreko helburuak eta estrategiak zehazteko.

Laburbilduz, euskararen erabilera normalizatzeko euskararen aldeko ekintzak egokitu eta proposatzea du xede.

Teniendo en cuenta los objetivos marcados en el plan, se deberán cumplir los siguientes criterios lingüísticos:

1. Jardueren zabalkundea (kartelak, liburuxkak, gutunak...) euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da. Zabalkundea bi hizkuntzetan egiteko arazoak dituzten administrazio batzarrek udalaren euskara zerbitzura jo ahal izango dute.

2. Euskara eta gaztelania erabiliko dira gauzatzen diren ekimen eta jardueretan: aurkezpenak, megafonia...

3. Jaien egitarauan euskarazko jarduerak antola daitezen sustatzea.

#### 9. OINARRIA. LEHENTASUN IRIZPIDEAK.

Ziurtatzeko betetzen direla Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta kuadrillan indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako planean ezarritako helburuak, genero ikuspegia kontuan hartu behar da aurkezten diren programa eta jarduerak egitearen ondorioz sortzen diren agiri guztietan. Diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueretan genero ikuspegia sartzeari sustatu beharko da. Horiek horrela, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, irizpide hauek proposatzen dira:

- Partaideen edo hartzaileen datuak sexuka (emakumeak eta gizonezkoak) bereizita aurkeztu behar dira edo, erakundeek beraiek bildu badituzte datuak, genero nortasunaren arabera (emakumeak, gizonak eta bestelako nortasunak).

- Saihestu egin behar da emakumeentzako zernahi eragin kaltegarri, eta, hala behar izango balitz, aurreikusi egin beharko dira eragin hori ezerezteko neurriak.

- Proiektuan edo haren harira gauzatzen diren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatu behar da.

- Dirulaguntza jasotzen duen organoak dirulaguntzan inplikaturako langileen berdintasunari buruzko prestakuntza sustatu behar du, udalak edo kuadrillak urtean zehar antolatzen dituen edo beste erakunde batzuek ofizialki eskaintzen dituzten ikastaroen eta/edo tailerren bitartez.

**10. OINARRIA. ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA, ETA DIRULAGUNTZAK KOBRATZEA.**

Gizarte eta kultura zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea; ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak.

Donemiliagako Udaleko alkateak du dirulaguntzak emateko eskumena, jardueraren frogagiriak aurkeztu ondoren; gero osorik ordainduko da onetsitako dirulaguntza.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, frogagiriak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtsio jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

**11. OINARRIA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN.**

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Jasotakoa gastua baino gehiago bada, murriztu egingo da dirulaguntza, gastua eta laguntza parekatu arte.

Donemiliagako Udalaren dirulaguntzaz gainera beste erakunderen batena jaso dutenek adierazi beharko dute zein erakundek eman dien eta dirulaguntzaren zenbatekoa zein izan den.

**12. OINARRIA. DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.**

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzan araututakoaren arabera izango da.

**13. OINARRIA. DIRULAGUNTZA GALTZEA.**

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, emandako dirulaguntzaren zati bat edo guztia galdu ahal izango da.

**14. OINARRIA. INTERPRETAZIOA.**

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

Hauek dira aplikatu beharreko oinarritzko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

**15. OINARRIA. ERREKURTSOAK.**

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Erdoña, 2025eko martxoaren 3a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**

**DONEMILIAGAKO  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN**  
(ALAVA)

<b>HERRIETAKO JAIENTARAKO eta/edo EKINTZA KULTURALENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA</b>			
<b>ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA</b>			
Izena eta bi abizenak edo Sozietatearen izena		NAN/AIZ/IFZ	
<b>NOREN ORDEZKARITZAN</b>		IFK – NAN	
Izena eta bi abizenak edo Sozietatearen izena		NAN/AIZ/IFZ	
Ondorengo izanik			
<b>JAKINARAZPENETARAKO DATUAK</b>			
Kalea			
Zk	Solairua	Aldea	
Posta-Kodea	Herria	Udalerria	Lurraldea
e-posta		Telefono zk.	Sakelakoaren zk.
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik.			
<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ			
<b>AZALTZEN DU:</b>			
<input type="checkbox"/> Herriko festak ondorengo datan egin direnez: .....			
<input type="checkbox"/> Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharren berri baduela, eta ez duela ordaindu gabeko zorrik Udalaren Ogasunean.			
<b>ESKATZEN DU:</b>			
<input type="checkbox"/> Dagokion diru-laguntza jasotsea:			
<input type="checkbox"/> (data).....ko diru-laguntzaren ordainketa gauzatu dadila.			
<b>ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA</b>			
<input type="checkbox"/> Kultura, musika edo kirolarekin lotutako edo hurrei zuzendutako ekintzei dagozkien fakturak edo aurrekontuak			
<input type="checkbox"/> Festetako kartela			

Data

Sinadura

**DONEMILIAGAKO  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN**  
(ALAVA)

**ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE**

**Aurrez aurre:** Udalean  
Andia Kalea, 9 – Ordoñana  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara

**Postaz:** Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan

**Helbide elektronikoa:** [asanmillan.general@ayto.araba.eus](mailto:asanmillan.general@ayto.araba.eus)

Informazio gehiagorako, deitu: 945 300472

[www.donemiliaga.eus](http://www.donemiliaga.eus)

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA**

<i>Tratamenduaren arduraduna</i>	Donemiliagako Udala (IFK: P0105900E)
<i>Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak</i>	Andia Kalea, 9 01208 Erdoñana, Araba 945 300 472 – <a href="mailto:dpo-dbo.sanmillan@ayto.araba.eus">dpo-dbo.sanmillan@ayto.araba.eus</a>
<i>Tratamenduaren xedeak</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal- eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrita.
<i>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</i>	ADBAOko 6. artikulua.
<i>Hartzaileak</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Donemiliagako Udalaren eta datuhartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere.
<i>Gordetzeko epea</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
<i>Pertsonen eskubideak</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.

DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)

**MEMORIA**

**Donemiliagako Herrietako Jaiak eta Ekintza Kulturalak**

**ADMINISTRAZIO-BATZARRA:** .....

**ADIERAZTEN DU**

202... urtean antolatu eta ospatuko diren herrietako jaiak finantzatzeko udal diru-laguntza deialdiarekin arabera, egindako jardueren memoria aurkezten da.

Erdoñana, 20.....ko .....ren.....a

**SINADURA**

**Oharra:** Memoria hau, deialdiaren 5. oinarrian eskatutako dokumentazioarekin batera, udal bulegoetan aurkeztu beharra dago jarduera bukatu eta gero.

1

DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)

**HERRIKO JAIAK**

- HERRIA.....
- ANTOLATZAILEA .....
- DATAK .....
- BURUTU DIREN EKINTZAK ETA PARTEHARTZAILE KOPURUA

EKINTZA	PARTEHARTZAILEAK	
	Emakumeak	Gizonak

**EKINTZA KULTURALAK**

- HERRIA.....
- ANTOLATZAILEA .....
- DATAK .....
- BURUTU DIREN EKINTZAK ETA PARTEHARTZAILE KOPURUA

EKINTZA	PARTEHARTZAILEAK	
	Emakumeak	Gizonak



DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)**MEMORIA EKONOMIKOA:  
HERRIKO JAIK**• **GASTUAK:****KULTUR JARDUERAK**

KONTZEPTUA	GASTUAK
<b>GUZTIRA</b>	

**KIROL JARDUERAK**

KONTZEPTUA	GASTUAK
<b>GUZTIRA</b>	


Fakturak eta justifikazioak oinarrien arabera erantsi

• **DIRU SARRERAK:**

KONTZEPTUA	DIRU-SARRERA
<b>GUZTIRA</b>	

• **DEFIZITA**.....





**DONEMILIAGAKO UDALA**  
(ARABA)

**AYUNTAMIENTO DE SAN MILLAN**  
(ALAVA)

**I ERANSKINA/ANEXO I: Justifikazio kontu erraztua / Cuenta justificativa simplificada**

**1. EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA IZENDUANA / RELACIÓN NOMINATIVA DE LOS GASTOS REALIZADOS**

202\_ urtean, Donemiliagako udalari, jaiak, gizarte eta kultura jarduerak antolatzeke emandako diru- laguntzari dagokionez, eta .....euroko diru-laguntza onartu dela kontuan hartuz, .....euroko aurrekontuari dagokiona, .....Jaun/andreak .....ren ordezkari moduan:

En relación con la subvención concedida dentro de la convocatoria pública de subvenciones para financiar la organización y celebración de festejos y actividades socioculturales desarrolladas en el municipio de San Millán en el ejercicio 202\_, por importe de .....euros, con un presupuesto total de ..... euros, D/Dª ..... en representación de la Asociación o Entidad.....:

**ZIURTATZEN DU/CERTIFICA:** Jasotako dirulaguntzen xedea bete dela, goian esandako datuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela diru laguntza, eta ezarritako epean egin dela jarduera. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharrak aitortu dituela erakundearen kontabilitatean. Gastuak behereko taulan zehazten dira.

Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.

Faktura zk. Eta jaulkipen data Nº de factura y fecha de emisión	Hornitzailea Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa (1) Importe (1)	BEZ(2) IVA (2)	Garbia(1+2+3) Neto(1+2-3)	PFEZ(3) IRPF (3)	Guztira (1+2) Total (1+2)	Ordainketa eguna (hala badagokio) Fecha de pago (en su caso)

Jatorrizko fakturak edo agiri balioak erantsi direla, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bereko 500 euro gainditzen dutenak (BEza aparte) eta horiek ordaindu izanaren frogagarriak.

Que se adjuntan facturas o documentos equivalentes originales o copia compulsada que, individualmente o de forma conjunta para un mismo concepto de gasto, superen la cantidad de 500 euros (IVA no incluido) y sus correspondientes justificantes de pago.

Honako diru laguntza, laguntza edota diru sarrera hauek lortu direla xede berezako/ Que para la misma finalidad se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos:

En ..... de ..... de 202  
.....an, 202...eko.....ren.....ak

ENTITATEA/ENTIDAD	ZENBATEKOA/IMPORTE

Ez dago beste inongo diru laguntza, laguntza edo diru sarrerarik jasotako/No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.

(Sinadura eta sigilua/Firma y sello)